



A eredua

IRAKASLEEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

HE1 (B2 maila)

PROBA IDATZIA

- Proba honek lau ariketa ditu: 1) Ahozkoaren ulermena 2) Irakurmena 3) Idazlan luzea 4) Idazlan laburra
- Denbora: **3 ordu.**

1. AHOZKOAREN ULERMENA

Orain grabazio bat entzungo duzu. Bi atal ditu eta atal bakoitza bi aldiz entzungo duzu. Lehenik galderak irakurtzeko denbora izango duzu. Gero galderen erantzuna idatzi behar duzu erantzun-orrian.

Iturria: *Euskadi Irratia*

1. atala

1.- Eskatzen zien jendeak *Iluntzean* abestia jotzeko?

- a) Ez, baina, hala ere, jotzen zuten.
- b) Inoiz eskatzen zieten.
- c) Bai, behin, erromerian jo zuten.
- d) Ez, baina errepertorioan zegoen.

2.- Abesti bat askotan kantatzea, aspergarria da taldearentzat?

- a) Ez da aspergarria.
- b) Ez daki aspergarria den edo ez.
- c) Eroso sentitzen dira beti.
- d) Bai, aspertu egiten dira.

3.- Zer dela-eta sortu zuten kantua?

- a) Kantuak sortzea erabaki zutelako.
- b) Beste batzuen kantua jotzen zituztelako.
- c) Kantuak jotzen animatu zirelako.
- d) Etxean agindu zirelako.

4.- Zergatik gogoratzen dira abesti batzuk?

- a) Kantu batzuk maitasun handi-handiarekin egiten direlako.
- b) Zerbait magikoa dago horretarako.
- c) Sortzeko orduan, modu berezian sortzen direlako.
- d) Ez dago jakiterik.

5.- Nola definitzen du abestia Itziarrek?

- a) Erromantikotzat jotzen du.
- b) Postal baten modukoa.
- c) Margolan bat dela dio.
- d) Hitz bezetako olerki bat bezalakoa.

2. atala

6.- Zer adierazten dute "... uraren hozkirriaren zirrara..." hitzek?

- a) Hondartza bat erakusten du.
- b) Bakoitzak nahi duena.
- c) Hitz-jokoa da.
- d) Nerabe batek idatzita dagoela.

7.- Zer dio Itziar Orexak hitzei buruz?

- a) Nerabe batek idatzitakoa izan behar duela.
- b) Goxoegia dela.
- c) Garai garratzak baino lehen idatzia dela.
- d) Nerabeentzat egina dela.

8.- Zer jotzen du Jon Escuderoen taldeak?

- a) *Ingo al degu, Iluntzean* eta *Behin batean Loiolan*.
- b) *Iluntzean* kantua jotzen du.
- c) *Ingo al degu* eta *Iluntzean* kantua.
- d) *Iluntzean* izeneko ranchera.

9.- Zergatik dio Itziarrek herriko jendeak herrikoa defendatu behar duela?

- a) Gazteak direlako biak.
- b) Herrikoa izatea garrantzitsua delako.
- c) Abestiak herrikoak direlako.
- d) Herri berekoak direlako biak.

10.- Zer dela-eta funtzionatzen dute berbenek?

- a) Orain dela 10-20 urteko abestiak jotzen direlako.
- b) Jonen taldekoek eginiko kantak jotzen dituztelako.
- c) 90eko hamarkadako kantua bakarrik jotzen direlako.
- d) Jotzen dituzten abestiak berri-berriak direlako.



A eredua

2. IRAKURMENA

Elgorria

Ekainaren hasieran jakin genuen. Lehen aldiz azken hamar urteotan elgorri kasuak izan ditugu Gipuzkoan. Negu-udaberrian izan da. Hogeita bat gaztek sufritu dute. Gazte horietatik 18 txertatu gabekoak ziren.

Gipuzkoako egoera herrialde garatuetan gertatzen ari denaren (...11...) da. Espainian bi elgorri kasu egon ziren 2004an; 2011ko lehen seihilekoan 1.300etik gora izan dira. Epe (...12...) Frantzia 5.000 kasu egon dira eta 6 heriotza. Iaz Kalifornian 10 lagun hil ziren.

Zergatik ari da gurean desagertutzat jotako eritasuna itzultzen? Txertatu gabeko haurren proportzioa igotzen ari delako. Umeek 12-15 hilabete dituztelarik "hirukoitz biriko" izeneko txertoa hartzen dute. (...13...), elgorriaren, errubeolaren eta hazizurriaren kontra txertatuta gertatzen dira.

Azken urteotan, guraso gazteen artean txertoak eragin kaltegarria izan dezakeela zabaldu da. Horregatik, gero eta gehiago dira seme-alabei "hirukoitz birikoa" jartzen ez (...14...). Hori elgorriaren birusetik babestuta ez dauden umeen eta gazteen artean gaixo-poltsa bat sortzen ari da, eritasunaren erasoak gertatzea (...15...) duena. Elgorri-erasoek ez diote soilik txertatu gabekoei eragiten, txertatutakoek ere paira dezakete eritasuna. (...16...), gizartea jartzen da arriskutan. Gurean umeen % 5 baino ez dago egoera horretan. Herrialde anglosaxoietan txertatu gabekoen portzentajea adierazgarria izan daiteke hainbat (...17...). AEBetan, 1.500 gurasoren artean egin berri den azterketa batek argitu du laurden batek uste duela txertoek autismoa (...18...) diezaieketela ume osasuntsuei. Halaber, hamarretik batek ez zituen seme-alabak txertatu.

Nola iritsi dira guraso horiek ondorio horretara? Internet bide izugarria da jendea informatzeko eta hezteko, baina baita informazio okerra eta (...19...) zabaltzeko ere. Interneten makina bat gune aurki daiteke txertoak eta autismoa lotzen dituen informazioa zabaltzen dutenak. Informazio (...20...) horri jantzi zientifikoa erantsi diote: Andrew Wakefield mediku ingelesak 1998an publikatutako lan batean 11 umeren autismoa "hirukoitz birikoarekin" lotu zuen. (...21...), lan hori iruzurra dela frogatu bada ere, sustrai luzeak utzi ditu bere bidean.

Gaur egun, eta daramagun martxan, elgorria osasun-arazo bihurtzear egon liteke. Nola egin aurre umeak ez txertatzeko (...22...) gero eta zabalduago horri? Arazoa bideratzeko oinarriak honako hauek izan dira: gurasoak egoki informatzea, auziaren (...23...) neurria ematea, eta jarrera horrek besterengan eragin (...24...) kaltea agerian jartzea. Osasun-sistemaren eta profesionalen lana izan daiteke hori. Prest al dago sistema horretarako? Esaterako, umeak (...25...) dituzten pediatrek ba al dute denborarik hori egiteko? Prestatuta al daude ezezko jarrera duten gurasoak konbentzitzeko? Prebentzio-lana izan daiteke hau guzti hau, baina krisi-garai honetan, osasun-aurrekontuak murriztu nahi diren honetan, aukerarik ba al dago?

Toki batzuetan legearen (...26...) erabiltzea erabaki dute. 2011ko uztailean Andaluziako Gobernuak onartu duen Osasun Publikoaren legeak seme-alabak txertatzera behartuko ditu herritarrak. Ez daukat oso garbi bide hau mementoko (...27...) ez ote den. Txertatzea nahi ez dutenek baliatzen dituzten argudioen artean "norbanakoaren askatasunarena" dago. Kasu horretan nabarmena da "askatasun" horrek beste batzuei ere eragiten diela, eritasun-poltsak sortarazten dituelako. Beraz, legea erabiltzeak (...28...) etikoa badu. Nago, ordea, ideien eta usteen esparruan informazio ona eta egokia (...29...) luzera eraginkorragoa dela. Interneten eta bestelako foroetan dabilen informazio okerra borrokatetik eta gurasoak konbentzitzetik eman ahalko zaio buelta joerari. Dena dela, gure gizarte honetan (...30...) asko jotzen dugu debekuaren bidetik, informazioa bigarren mailan lagata.

Iñaki Irazabalbeitia (moldatua)

A eredua

11.- a) ondorioa b) isla c) multzoa d) atala	12.- a) antzean b) askotan c) berean d) jakinean	13.- a) Behintzat b) Adibidez c) Ondorioz d) Alabaina	14.- a) diotela b) zaizkienak c) dizkienak d) dietenak
15.- a) errazten b) azkartzen c) erakartzen d) moteltzen	16.- a) Ordea b) Halaber c) Beraz d) Berriro	17.- a) lekuetan b) eskualdetan c) herrietan d) eremuetan	18.- a) sartu b) berregin c) birsortu d) eragin
19.- a) pipertua b) ustekeriak c) txarkeriak d) mingarria	20.- a) erratu b) gezurti c) argigarri d) zabal	21.- a) Oraingoz b) Horregatik c) Jakina d) Gerora	22.- a) premia b) eskaera c) joera d) joko
23.- a) benetako b) ondorengo c) kontrako d) tamainako	24.- a) daitekeen b) dezakeen c) ditzakeen d) daitezkeen	25.- a) operatzen b) informatzen c) artatzen d) erakartzen	26.- a) zirrikitua b) letra c) mamia d) pisua
27.- a) adabakia b) presioa c) sukarra d) zeregina	28.- a) zirriborro b) erremedio c) askatasun d) zilegitasun	29.- a) urte b) epe c) hain d) sasoi	30.- a) erraz b) sarritan c) legez d) jende

A ereduia

[illegible]

3. IDAZLAN LUZEA

Ondoko bi gaien artean bat aukeratu eta gutxienez 175 hitzeko idazlana osatu behar duzu.

Herriaren bilakaera. Lagun bat Australian ibili da lanean azken hogeit urtean. Udan oporretan etorriko da herrira. Bidal iezaiozu dokumentu bat e-mailez herrian izan diren aldaketak eta horien zergatiak analizatzuz. **Hizpide hauek garatu behar dituzu:**

- Zerbitzu publiko eta pribatuak
- Populazioa eta etorkinak
- Balioespena

Telebista, familiaren etsai? Ikerketen arabera, haur eta gaztetxoek urtean 1.500 ordu ematen dituzte telebista aurrean (eskolan 900). Gainera, guraso askok ez du telebista haurrekin ikusten. Idatzi artikulua eskolako web-orrian.

Hizpide hauek garatu behar dituzu:

- Telebista ikusteko moduak
- Zeure iritziak
- Aholkuak (ordutegia, saioak aukeratu....)

10.....

20.....

A ereduia

30.....

40.....

50.....

60.....

4. IDAZLAN LABURRA

Idazlan honek 100 hitz izan behar ditu gutxienez.

Zure ikasleekin irteera egin behar duzu ETBko Bilboko egoitzara. Idatzi gutuna gurasoei. **Hizpide hauek garatu behar dituzu:**

- Txangoaren helburua
- Bisitaren nondik norakoak (eguna, ordua etab.)
- Gurasoei baimena eskatu

10.....

20.....

30.....

ERANTZUN ZUZENAK

HE1: Ahozkoaren Ulermena (Iluntzean)

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
B	A	A	D	B	C	A	B	D	A

HE1: Irakurmena (Elgorria)

11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
B	C	C	D	A	C	B	D	B	A

21	22	23	24	25	26	27	28	29	30
D	C	A	B	C	D	A	D	B	A